

Berba egokien bila beti

Ikaslea: J. Z.
2002-2003

Berba egokien bila beti

Gogotsu eta mila gauza kontatzeko asmotan hartu dot gaurkoan boligrafoa. Hilean birritan, askea den lagun preso bati eskutitzak idazten deusadaz, nire hitzak jasoko ez dauzan penaz. Herdoiltzen hasia dan kaiola baterako bidean jartzen dodaz, hori ei da bere helbidea.

Gaur beste askotan bezala, berba egokien atzetik nabil, berba goxoak, alaiak, adore zein itxaropen berbak.

Ez zaitut mindu nahi, zure irribarrea esperantzaz josi besterik ez. Horregatik zugaz berri txarrak film irrealak bihurtzen dira eta onak berriz itxaropen haziak. Hala ere, "izenak izen, mitoak mito".

Egoera ez da ona, herriaren amorrua nabari da eta azken aldian hau oso ilun dagoela esan beharra dago. Batzuek, ·hondamendi ekologiko· hitza erabiltzen dabe egoera azaltzeko eta salatzeke, baina argi dago gure kostaldetan jasotako txokolate lodi mordo, hasarrea suspertzeko aitxakia besterik ez dala. Besteak beste, aspaldi hasi ziran kaloria askoko sagu hanburgesak guri erasotzen. Honeentzat ere berba egokiak falta jataz.

Normalean, goiz oheratzen naz; gustoko dot lo egitea. Ametsetan bizi berri baten aurkitzen naz, seguruenik, gauero istorio berri baten pertsonaia naz eta arazoak izanez gero, ez dira hurrengo batean errepikatzen. Horregatik, lasai noa ohera, bizi berri baten murgiltzeko asmoz, egunerokotasuna alde batera utzi eta nire bizitza errealari falta jakon kutsua sentitzeko asmoz. Baina, bat-batean... Bai. Iratzargailu madarikatua, bere doinu monotono eta nazkanteagaz egunero esnatzen nau goizeko zazpiak eta laurden inguruan. Jarraian ama ailegatzen da, arineketan musu bat eman eta lanera abiatzen da ia gosalduta barik. Begiak irekitzean, egun berri bat hasten da, ametsa berriz, atzean geratu da, desagertu egin da.

Agian, zuk badakizu zer dan amets bat bizitzea, horretarako joan zinan, behintzat egun hartan hori zeneukan buruan. Aurrean barik, elkar agurtu genduan eta badakizu, bazenekin, nire malkoak ez zirala debalde.

Ez ziran zure bila etorri, ez zan bat-batean gertatu, presaka, oihuka, indarrez. Baina jada, bi urte pasa dira eta zain nago oraindik ere. Zure hitzak gogoan daukadaz, ekintzak oroitzen eta argazki zahartu bat da, zure gazte aurpegia ez ahazteko baliabiderik onena.

Altxatu bezain laster, irratia pizten dot. Eguna hasteko erarik onena dala uste dot, musikak alaitzen nau, tristetu beste askotan, baina batez ere momentu ederrak gogoratzen deustaz. Ametsak luzatzeko era ergel bat izan daiteke, hasia den egun berriari gogoz aurre egiteko edo arazoei doinua jartzeko. Dena den, denbora aurrera doa eta minutu bat bera ere galdu barik gosaldu, dutxatu, jantzi, motxila prestatu eta kalera irten behar dot autobusera garaiz heldu nahi badot. Bertan, betikoa aurkituko dot; nire aurrean, ia ezagutzen ez dodan institutoko neska; ondoan, erdi lo, Ane; atzekaldean, goizeko zortzietatik marmarka dabiltzan andre saltserak eta gainera, hau nahikoa ez bada, irratian politikari buruzko mintzaldia dago. Institutura helduko ez nazen beldurrez, sakon hartzen dot arnasa eta bertatik hurbil dagoan geltokira heltzean, eskerrak emoten deustadaz sinisten ez dodan jainko horri. Gauza bera gertatzen da eguerdian, ordu bi eta erdietako txirrina entzutean.

Ziur nago zuk ere holako zeozer sentitu dozula inoiz; momentua noiz helduko dan irrikitan egon eta heltzean, gaintik pasa, goxatu barik alboratu eta monotonian barrena aurrera jarraitu.

Jan ondoren, berehala dator arratsaldea. Asteko egunaren arabera, gauza bat edo beste egin beharra daukat, baina eginbeharra beti dago. Idatzi, dantzatu, irakurri, abestu edota ikasi, gustokoa izan ala ez, egiten dot, goxatzen dot. Hara eta hona nabil, gazteak daukan grina lehertu arte. Baina etxera heltzean, atzo, gaur eta bihar, bat bera direla konturatzen naz, ez da ezer aldatu, dana berdin dirau. Barruko hutsunea bete beharrean nago eta pozten nau ilargia ikusteak.

Iluntzen hasi da eta nekaturik sentitzen naz. Gaurko eguna ez da berezia izan, ez da gogorra izan. Nekea ere ohitura bihurtu da, besterik ez. Eguzkia badoa eta berarekin alaitzen gaituen argia, mugitzen gaituen beroa. Ilargia berriz, hotz dator, ilun eta itzal ezezagunarekin. Gaur eta atzo, ez naz eta ez nintzen gaua ezagutzera ausartu, agian bihar, edo etzi. Orain begiak itxi eta... lo egin.

Zelan pasa dozu gaua?

Bat-batean...bai. Iratzargailua. Egunero esnatzen nau goizeko zazpiak eta laurden inguruan. Jarraian ama ailegatu da, arineketan musu bat eman eta lanera abiatu da ia gosaldu barik. Begiak irekitzean, egun berri bat hasi da, ametsa berriz, atzean geratu da, desagertu egin da. Eta pozten naz, gaur egunari ekiteko gogoz nagoalako. Badakidalako egun berri honek zenbait

bitxikeri dauzkala eta oraingoan, dena eskertzeko prest nago. Ordu, minutu eta segundoak bizitzeko irrikitan esnatuko naz aurrerantzean, gaurtik aurrera itzartuta amets egingo dodalako.

Biziki maitatu izan dozu inoiz? Argi dago baietz. Ezagutzen zaitut eta badakit horrek mugitzen zaituela, egia esan, horrek mugitzen gaitu, bizirik mantentzen gaitu. Maitasunik sinpleena, maitasunik ederrena da. Esfortzurik gabekoa, nahi barik, berez, barruan daroaguna da benetako maitasuna. Askotan ahaztu egiten dogu eta bila ibiltzen gara urruti.

Orain badakit zer sentitzen dozun bisitarik gabeko epe luzeetan, badakit zer dan ama atetik sartu eta musu arin bat emotea. Ez da bakardadea, ez da monotonia, hori askatasuna da.

Irratiak txalaparta doinuekaz esnatu nau. Aspaldiko garaiak datorkidaz burura eta zu hemen zinan.

Arineketan prestatu eta korrika urten dot etxetik. Autobusa justu-justu hartu dot eta nire institutuko lehen eguna bailitzan jesarlekuan eseri eta marmarka hasi naz atzeko andreen antzera. Autobusetik jaitsi, eskolak era batean jasan eta bueltan, egun berezia izan dela konturatu naz. Atzo ez zan gaur izan eta bihar ez da gaur izango.

Portaleko atea zabaldu eta buzoian begiratu dot, gutunik dagoen ikusteko. Iragarki desberdinen artean, gutun berezi bat dago. Atzekaldean, zera dator idatzita: "EUSKO GUDARIA".

Oraingoan ere, malkoak ezin eutsiz oroitarazten zaitut. Urduri, pozez beterik eta begiak lainoturik dauzkadazala, zure berbak lehen aldiz irakurri dodaz. "Badakit ez dela azken aldia izango" penaz, pentsatu dot nire barnerako.

Aurrera jarraitu eta... orain bai, orain badakit zer esan nahi dauan aske sentitzeak lau horma artean egonik. Gizakia korapilatsuegia da bizitzak eskaintzen deutzazan mirari sinpleak estimatzeko edo, agian, aldrebes izango da? Gu al gara mundu honetako sinpletasunaren eredu? Dena-den, zuk guzti hori miresten ikasi dozu. Goizeko iratzargailu horren tonu hotzetik hasi eta gauak, batez ere ilargiak, izkutatzen dauzan misterioetara heldu arte.

Atzoko ametsa izan da guzti honen eragilea. Ilargiari begira elkartu ginan,
dantzan, bizirik eta aske.

*Urrundu behar zinela, baina laister ikusiko genduala elkar esan zeunstan eta
gaur hemen nago, berba egokien bila.*

Bihar ere, hemen izango naz.